



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko otsailaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Prieto Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Otsailaren 17ko 64/2020 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 2/20 zenbakidun kreditu-aldaketa onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-kanpineko 2020ko tarifak biribiltzeko proposamena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal-liburutegiko arduradunaren lanaldia luzatzea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, udal-kanpineko langile finko etendun batzuen lanbide-kategoria eta ordainsari-maila aldatzea.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO URTARRILAREN 29KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2020ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurako akta.

2.- OTSAILAREN 17KO 64/2020 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 2/20 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETA ONARTZEN DU, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Otsailaren 17ko 64/2020 alkate-dekretuaren bidez onartutako 2/2020 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 2.447.072,90 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-KANPINEKO 2020KO TARIFAK BIRIBILTZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko otsailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udal-kanpineko 2020ko tarifak biribiltzeko proposamena. Aplikatuko diren tarifak hauek dira:

1.- EGUNEKO EGONALDIAREN TARIFAK, GOI-DENBORALDIAN

Udal-kanpineko eguneko egonaldiaren tarifak hauek izango dira goi-denboraldian (uztailaren 16tik abuztuaren 31ra, biak barne):

		Euro / eguneko, BEZik gabe
a)	Helduak	5,91
b)	Haurrak	5,14
c)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela)	37,74

Epigrafe honetako c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, baita ere, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

2.- EGUNEKO EGONALDIAREN TARIFAK, TARTEKO DENBORALDIAN

Udal-kanpineko eguneko egonaldiaren tarifak hauek izango dira tarteko denboraldian (ekainaren 15etik uztailaren 15era, biak barne; eta irailaren 1etik 12ra, biak barne):

		Euro / eguneko, BEZik gabe
a)	Helduak	5,91
b)	Haurrak	5,14
c)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela)	33,95

Epigrafe honetako c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, baita ere, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

3.- EGUNEKO EGONALDIAREN TARIFAK, BEHE-DENBORALDIAN

Udal-kanpineko eguneko egonaldiaren tarifak hauek izango dira behe-denboraldian (martxoaren 1etik 17ra, biak barne; martxoaren 22tik apirilaren 7ra, biak barne; apirilaren 14tik 29ra, biak barne; maiatzaren 4tik ekainaren 14ra, biak barne; irailaren 13tik urriaren 8ra, biak barne; eta urriaren 12tik azaroaren 8ra, biak barne):



Euro / eguneko, BEZik gabe		
a)	Helduak	4,00
b)	Haurrak	3,05
c)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela), egun bateko egonaldian	24,04
d)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela), 2 egun edo gehiagoko egonaldian	21,68

Epigrafe honetako c) eta d) ataleko tarifek barnean jasotzen dute, baita ere, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

4.- EGUNEKO EGONALDIAREN TARIFAK, JAI-ZUBIETAN

Udal-kanpineko eguneko egonaldiaren tarifak hauek izango dira jai-zubietan (martxoaren 18tik 21era, biak barne; apirilaren 8tik 13ra, biak barne; apirilaren 30etik maiatzaren 3ra, biak barne; eta urriaren 9tik 11ra, biak barne):

Euro / eguneko, BEZik gabe		
a)	Helduak	4,00
b)	Haurrak	3,05
c)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela)	28,27

Epigrafe honetako c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, baita ere, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

5.- LUZAROKO EGONALDIAREN TARIFAK

Euro, BEZik gabe		
a)	80 m2-ko partzela argi, ur eta hustubidearekin (A partzela)	3.895,45
b)	60 m2-ko partzela argi, ur eta hustubidearekin (B partzela)	3.659,09
c)	80 m2-ko partzela argiduna (C partzela)	3.497,27



Tarifen ordainketari dagozkion hobariak kendu egingo dira, eta tarifa horiek ordaintzeko gehieneko epea ezarriko da: urte bakoitzeko abuztuaren 31 arte.

6.- GARBITEGI-ZERBITZUAREN TARIFAK:

- Garbigailu-zerbitzua erabiltzeko prezio publikoa: 4,00 euro (BEZa barne).
- Lehorgailu-zerbitzua erabiltzeko prezio publikoa: 3,00 euro (BEZa barne).

7.- DUTXA-ZERBITZUAREN TARIFAK:

- Dutxa-zerbitzua erabiltzeko prezio publikoa: 2,35 euro (BEZa barne).

8.- UDAKO DENBORALDIKO TARIFA

- Udal-kanpina ekainaren 1etik irailaren 13ra, biak barne, erabiltzeko prezio publikoa: 2.991,82 euro (BEZik gabe).

9.- BUNGALOWAK ERABILTZEKO TARIFAK:

Bungalowak erabiltzeagatik tarifa espezifikoak sortzea onartzen da, tamainaren eta denboraldiaren arabera:

- **Aparteko denboraldia** data hauetan izango da: uztailaren 16tik abuztuaren 16ra, biak barne
- **Goi-denboraldia** data hauetan izango da: uztailaren 1etik uztailaren 15era, biak barne; eta abuztuaren 17tik abuztuaren 31ra, biak barne.
- **Tarteko denboraldia** data hauetan izango da: apirilaren 7tik apirilaren 12ra, biak barne; apirilaren 30etik maiatzaren 2ra, biak barne; ekainaren 15etik 30era, biak barne; irailaren 1etik 13ra, biak barne; eta urriaren 9tik 11ra, biak barne.
- **Behe-denboraldia** data hauetan izango da: goian aipatu ez diren denbora-tarte guztiak.

Bungalowak lau motatakoak izango dira: 2-4 pertsonatakoak, 4-6 pertsonatakoak, 5-7 pertsonatakoak eta behar berezietarakoak.

Bungalowen eguneko tarifak (BEZa barne) hauek izango dira:



Bungalow-mota	Aparteko denboraldia	Goi-denboraldia	Tarteko denboraldia	Behe-denboraldia
2-4 lagun	90,45 €/eguneko	85,82 €/eguneko	73,82 €/eguneko	63,64 €/eguneko
4-6 lagun	118,18 €/eguneko	110,73 €/eguneko	92,27 €/eguneko	77,73 €/eguneko
5-7 lagun	145,91 €/eguneko	136,36 €/eguneko	118,18 €/eguneko	101,82 €/eguneko
Behar berezietarakoak	118,18 €/eguneko	110,73 €/eguneko	92,27 €/eguneko	77,73 €/eguneko

- Ohikotik aparte izarak eta toallak ematen direnean, edo sofa-ohea erabiltzeko, tarifa berezi bat ezartzen da: 4,77 €/pertsona (BEZik gabe).
- Sehaska bat uzteko, 30 euroko fidantza espezifiko bat ezartzen da; trona bat uzteko, berriz, 20 eurokoa.
- 100 euroko fidantza ezarriko da eta promozio bereziak egingo dira bungalowen erabilera sustatzeko behe-denboraldian. Promozio horien berezitasunak udal-kanpinaren zuzendariak ezarriko ditu, aldez aurretik Udaleko Turismo Batzordean diktaminatuta.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LIBURUTEGIKO ARDURADUNAREN LANALDIA LUZATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko otsailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udal Liburutegiko arduradunaren lanaldia luzatzea, egungo lanaldia %55,17tik lanaldi osora pasatuz (%100), 2020ko martxoaren 2tik aurrera.

Emandako botoa azaltzeko, Xabier Ibarguren zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, Kultura Batzordeko buru den aldetik, eta, lehenik eta behin, adierazten du pozik dagoela udal-akordio hau aho batez hartu delako, erabaki garrantzitsua baita, eta Orioko herritarrengan eragin oso zuzena izango duena. Gogorarazten du, orain arte, udal-liburutegia arratsaldez bakarrik egon dela zabalik (16:00etatik 20:00etara) eta, aurrerantzean, 2020ko martxoaren 2tik aurrera, goiz eta arratsalde zabalduko dela (10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era). Horrek eragin positibo zuzena izango du zerbitzuaren erabiltzaileengan: haurrak, ikasleak, helduak, pentsiodunak...



Xabier Ibargurenek adierazten du, baita ere, horrela, Orioko udal-liburutegia eskualdeko gainontzeko udal-liburutegien pare egongo dela ordutegiari dagokionez.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, Miren Andueza udal-liburutegiko arduradunak egindako lana publikoki eskertzeko, urte luzez aritu baita ekinean, ordu asko sartuz ohiko lanalditik kanpo.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-KANPINEKO LANGILE FINKO ETENDUN BATZUEN LANBIDE-KATEGORIA ETA ORDAINSARI-MAILA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Udaleko Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** SONIA FERNANDEZ CARRERA udal-kanpineko langile finko etendunaren lanbide-kategoria eta ordainsari-maila aldatzea: 2020ko otsailaren 26tik aurrera, Harrerako buru lanbide-kategoria izango du, eta C2-10 ordainsari-maila.

2.- **ONARTZEA** Udal-kanpineko garbiketako langile finko etendunen ordainsari-maila aldatzea: 2020ko otsailaren 26tik aurrera, E-6 ordainsari-maila izango dute.

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza, Ogasuna eta Pertsonala Batzordeko buru den aldetik, honako hau adierazteko: udal-agintaldia hasi zenetik, bana-banako bilerak izan ditu Udaleko langileekin —oro har— eta Udal Kanpineko langileekin —bereziki— beharren eta gabezien azterketa eta diagnostiko zehatza egiteko. Bilera horiek izan dira abiapuntua gaurko egunez Udalak hartu dituen erabakiak hartu ahal izateko.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsona batek hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,